

## AZTERLANen KUDEAKETA POLITIKA

AZTERLAN irabazi asmorik gabeko Metalurgia Ikerketa Zentro pribatua da helburutzat duena metalurgiaren alorrean eta material metalikoen transformazio teknologia desberdinen inguruan ezagutza sortzea, biltzea eta transferitzea, baita balio erantsi handiko zerbitzuak eskaintzea ere industria metal-mekaniko ehunaren lehiakortasuna hobetzeko.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareak zein Espainiako Gobernuaren Ekonomia eta Lehiakortasun Departamentuaren Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzarako Estatu Idazkaritzak Zentro Teknologiko bezala onartua, AZTERLANek herrialdeko industria eta berrikuntza politikekin konpromiso tinkoa mantentzen du.

Era berean, Azterlan BRTA (Basque Research and Technology Alliance) erakundearen parte da; hainbat espezialitate alorretako agente teknologikoen aliantza, zeinak Zentroaren potentzialtasuna areagotzen duen, baita industriak zein gizartearen osotasunak aurre egin beharreko erronka gero eta konplexuagoei erantzuteko Zentroaren gaitasuna ere.

AZTERLAN kualifikazio altuko giza-taldeak osatzen du. Kolektibo honek proiektu bateratua partekatzen du industria ehunari soluzio lehiakorrak eskaintzeko helburu nagusiarekin lerrotatuta. Kolektibo honen espezializazio maila altuak metalurgia alorrean erreferente bilakatzea ahalbidetu dio AZTERLANi, nazio mailako zein nazioarteko abangoardiako agente zientifiko-teknologikoekin harreman estuak mantenduta.

Zentroaren aktibo nagusiak dira: bere lantaldearen trebakuntza altua eta zorroztasun zientifikoa eta esfortzuak, profesionaltasunak, zintzotasunak, ilusioak eta enpresa bezero bakoitzaren erronkekiko zein beharrekiko konpromisoak bereizitako baloreak eta berezko estiloa.

AZTERLANek bikaintasuna bultzatzen du espezializazioaren bitartez eta gainontzeko agente teknologiko, industrial eta instituzionalekin batera gaitasunak koordinatuz eta integratuz, beti ere, bere aktibitatera zuzendutako baliabideen erabilera efizientea sustatuta eta industria alorrean zein arlo sozialean (hauentzako jarduten duelarik) kualifikatutako pertsonak gaitzea eta integratzea bultzatuta.

Elementu lotesle bezala, AZTERLANek bere ekimen alor desberdinak egituratzen dituen eta hauei erantzuna ematen dien Kudeaketa Sistema hartu du. Sistema honek bikaintasunaren bidean aurrera egitea ahalbidetzen du, ezar daitezkeen baldintzak betetzea bermatzen du, tartean oinarri duen UNE 1666002 arauak bere baitan zehazten dituenak, eta etengabeko hobekuntzako prozesua kontsolidatzen du.

Kudeaketa Politika honen onarpenaren bitartez, Zuzendaritzak berau betetzeko konpromisoa aurkezten du eta bere burua behartzen du AZTERLANen kolektiboa osatzen dutenei ezagutzera ematera, Zentroaren ekimenaren alorrean zuzenean zein zeharka interesdun diren agente zein alderdien eskura jarrita.



Garikoitz Artola Beobide  
Zuzendaria